

GURE GORPUTZA, GURE TERRITORIOA, GURE ERABAKIA

2014ko martxoak 8a

Irakurketa zabala:

Apaizek, epaileek, jakintsuen biltzarrek, jaungoikoez, legeek, medikuek, ohiturek, estatuek, e.a. egunero zanpatzen digute emakumeoi gure gorputza eta bizitzaren gain erabakitzeko dugun eskubidea, izan beharko genukeen aukera eta borrokatzen dugun nahia, alegia. Gure gorputzak, hauskor, erabilgarri, objektu pasibo gisa hartzen dituzte botere gune politiko, ideologiko zein ekonomikoek. Eta horretarako, estatuek, kapitalismoak, patriarkatuak bitarteko anitz darabilte herrialde anitzetan emakumeon gorputzaren kontrolaren bitartez interes ideologiko (kontserbadoreak: "gure baloreen aurka doa abortua"), ekonomikoak (ezin ditugu doako abortuak onartu) eta ideologikoak erdiesteko. Gure territorioan, gorputzean, aske sentitu ez gaitezen irudikatzen gaituzte...

- printzesak, objektu erakargarri eta ez erabaki-askegarri gisa.
- etxeko lan eta zaintza lan guztien arduradun eta erreproduktzioarako makina gisa.
- gure gorputzetan pastiliez gainezka eta gure gorputzaren gaineko ezagutza ukatuz, gure burua zaintzeko gai izango ez bagina bezala.
- gure gorputzaren eta bizitzaren preso, batzuetan barrote fisikoez zeharkatua egon ez arren.
- infantil, haurrak izango bagina bezala, zeinetan, gure bizitzetan, senar, mediku, aita-estatuen onespina, baimena behar dugun gure bizitzak burujabe bizi eta aurrera eramane ditzagun.

Egungo testuinguru sozial eta politikoak biziki arduratzen gaitu, kapitalismoaren, balioen, zaintzen krisiaren testuinguru honetan austeritate neurriak jarri dituzten martxan, zeinetan, urteetan borrokaren bitartez irabazitako eskubideak galdu ditugun, bizitza duin bat izatea gero eta zailagoa izanik. Egiturazko neurri murriztaile guztiek, emakumeen etxeratzea eta familia heteropatriarkala indartzea dute helburu. Austerilketek (egiturazko neurri murriztaile hiltzaileek) ezaugarritzen duten krisialditik ateratzeko politika guztiak. Eta hori gutxi balitz, eskuin muturrak, eliza kontserbadoreak bidelagun izanik emakumeon eskubideak murrizten ari da eta sexualitatea eta gure gorputzen gaineko kontrola areagotuz, kasu Gallardonek proposatutako lege aurreproiektua.

Hala, ofentsiba eskuindarra ikaragarria da. Gallardonek proposatutako aurreproiektua: *Kontzebituaren Bizia eta Haurdunaren Eskubideak Babesteko Lege Organikoa* izenburu duena, emakumeon erabakitzeko eskubidea eta gure gorputzaren gaineko kontrola areagotzeko beste pausu bat da.

- Atzerapausoa dakar emakumeon eskubideetan. Jada ahantzita zegoela zirudien bide batean sartuko gaituzte: 1985eko ildora garamatza; ordukoa baino murriztaileagoa da. Kezkagarriena, ordea, abortatzeko eskubidea legez kanpoko ekintza gisa hartzea da. Larriena delitutzat jotzea eta Zigor Kodean mantentzea da.
- Madrilgo gobernuan dagoen eskuin katoliko muturrekoak ez du arazoarekin bukatu nahi. Alderantziz: arazoa bultzatu eta sakondu nahi dute gobernuko integristek. Izan ere, muturreko eskuin katolikoko kideek ez dute ukatzen bakarrik emakumezkoon abortatzeko eskubidea. Ikastetxeetan eta hezkuntzaren Curriculumean sexu-heziketa egotea ez dute onartzen, ezta berdintasuna bermatzea ere. Beraientzat, sexualitatea ezin da kontsideratu, berez, helburu; bitartekoa izan behar da, espeziea ugaltzeko bitartekoa, tresna, media, baliabidea.
- Honez gain, haurdunaldiaren borondatezko etetea legez kanpo uztea du helburu. Horretarako, moralitatean oinarritutako eztabaida etikoetan korapilatzen gaituzte, errealitateari buruzko datuak manipulatzeko. Datu batzuk aipatzearren: Haurdunaldia etetea erabakitzen duten hamar emakumetik bederatzik duten arrazoia haurdun gelditu nahi ez izatea da. Haurdun daudela jakin eta ia berehala hartutako erabakia da: abortuen %97,7a lehenengo 14 asteetan praktikatzen dira eta hauen %54a lehenengo 7 asteetan. Adinari dagokionez, %60a 18-30 urte bitartekoak dira eta %37a 18-25 urte bitartekoak.
- Klase-jatorri ikuspegia kontuan hartu behar da. Azken batean, andre askok klandestinitatera jo beharko dute abortatzera, eta horrek emakumeen bizimoduan eta osasunean bete-betean eragingo du. Gogora ekarri behar da, orobat, legeak diru ahalmen gutxikoei egiten diela kalte batik bat. Beraz, dirurik ezean, emakume askok ezingo dute haurdunaldia eten, eta horretarako duten eskubidea ukatuko zaie. Egun ere, osasun sare publikora sarbidea ez duten emakumeak badaude, zeinetan ez dituzten ziurtatuta oinarritzko osasun eskubideak.

Inguruko herrialdeetan zein da panorama? Europan ikusten den joera.

Egun, European muturreko eskuinaren garapenak arduratzen gaitu, emakumeon eskubide eta askatasunetan atzeraka egiteko borondatea bistakoa baita. Europako herrialdeei begiratzen badiogu, ikusi genezake gobernuarteko, muturreko eskuinen eta eliza kontserbadoreen arteko aliantzak gorantz doazela, eta bide batez, urtetako garaipen sozialak deuseztatuz.

- Irlanda: abortua ilegala da. 1992an Gorte Gorenak baimendu behar zuen emakumearen bizitza arriskuan zegoenean baina orduz gerostik ez da legerik bozkatu hau barnebilduko duenik.
- Mazedonia: eskubideak atzerantz doaz. 2013ko ekainean parlamentuak lege bat onartu zuen zuzenean emakumeen eskubideak urratzen dituen, artean murrizketak HBE.
- Italia: abortu klandestinoak gorantz doaz, abortuak praktikatzen dituzten zentroak ixten doaz pixkanaka.
- Lituania: egun abortua legezkoa da 12.asterarte, baina Parlamentua aztertzen ari da Gallardonon lege antzekoa proposatzea.
- Malta: abortua ilegala da fetuaren malformazioa edo bortxaketa kasuetan izan ezik.
- Estatu frantsesean: 1975.urtetik aurrera haurdunaldiaren lehenengo 12 asteen barruan abortua legala da. Eta hortik aurrera, amaren osasun fisikoa nahiz psikikoa arriskuan dagoenean edota fetuaren malformazio kasuetan. Berriki iragarri du Frantziako gobernuak, lege berri bat egingo duela berdintasunaren alde, zeinetan, abortatzeko eskubidea oraindik gehiago sendotzen duen: Batetik, zigor handiagoak ezarriko dizkie abortatzeko eskubidea saihesteko ekintzak egiten dituzten taldeei ; eta bestetik, abortatu ahal izateko, orain arte zegoen "larrialdi egoeraren" baldintza kenduko dute. Ikastetxeetan sexu-heziketarako programak lantzea ere planteatzen du Frantziako gobernuak. Nahiz eta Frantziako gobernuak aurrera pauso horiek eman, guztia oztopatu nahian dabilta eskuineko zein Elizako muturrekoak. Iaz gay eta lesbianen ezkontza eta adopzio eskubidearen aurka gogorki mobilizatu zirenak, sexu-heziketarako programaren aurka eta abortatzeko eskubidearen kontra dira mobilizaturik.
- Portugalen: 10. Astearte da abortua legala. 12.asterarte fetuak malformazioak dituenen.

Beraz, gure gorputza, gure territoria egunero da kolpatua, ukatua eta jazarria. Baina emakumeok, feministok, gure gorputzetan erabakitzeko eskubidea izan dezagun borrokatzen, jarduten, amesten jarraitzen dugu egunero. Horretarako ezarritako kontrol eta botere jazarpenaren aurrean bide zidorrak topatuz, bidean elkartuz eta elkarrekin bide zidorretako sasi eta oztopoei elkarrekin aurrera eginez. Euskal Herrian bizi garen emakumeon eskubideak zanpatzen dizkigute apaiz, epaile, jakintsuen biltzar, jaungoiko, lege, mediku, ohitura, estatuek; baina, askotan baita hauen konplize diren eta "legea betetzea" funtzio gehiagorik ikusten ez duten Nafar gobernu, Opus Dei, Jauriaritzak ere. Beraz, emakumeon gorputzen gainean erabakitzeko eskubidea ukatzen duten lege, jarrera, diskurtso arrotzei, Gallardon-en legea kasu, desobediencia egitea eskatzen diegu jendarteko eragile-agente desberdinei. Bestalde, martxoan Ipar Euskal Herrian bozkatuko diren herrietako hautetsiei ere galdetzen diegu emakumeok gure gorputzetan erabakitzeko dugun eskubidea bermatzeko zein neurri, politika, ardua hartuko dituzten. Honela, Euskal Herrian bizi garen emakumeon erabakitzeko eskubidea bermatu dadin bide orri bat zehazten joateko.

Gure territorioan aske, libre bizi nahi dugu! Gure gorputzetan aske, gure bizitzetan, bizi tokian, lurrean, herrialdean aske. Lege arrotzei muzin egin, eta gure herrian, emakumeok aske bizi gaitezen baldintzak jorratzen segi behar dugu.

GURE GORPUTZA; GURE TERRITORIOA; GURE ERABAKIA;

GORA BORROKA FEMINISTA!



euskal herriko bilgune feminista

Euskal Herrian, 2014ko martxo